## Parte-hartzearen baldintzak

1- Plaza mugatuak direnez, inskripzioak ordenaren arabera onartuko dira. Ez dira kuota ordaindu gabeko eskaerak onartuko.
Kanpaldira joan ezinean, dirua ez da itzuliko.
2- Kanpaldian parte-hartzeak esan nahi du kirolariaren eta bere senitartekoek Antolakuntzak ezarritako baldintzak onartzen dituztela. Diziplina-falta astunaren, portaera txarra jarraituaren edo Kanpaldiko arauak betetzen ez direnen kasuetan, kirolariari etxera bidaliko zaio eta gurasoak edo tutoreak eragindako gastu gustietaz arduratuko dira: (lekualdatzearenak, hirugarren pertsonentzat egindako kalteekin lotutakoak eta Antolatzaileak portaera honengatik ordaindutako ez ohiko gastuak).
3- Antolatzailea ez da zabarkeria pertsonalarengatik galdutako edo lapurtutako objetu pertsonletaz arduratuko.
4- Gurasoek edo tutor legalak kirolaria baimentzen dio Kanpuseko txangoak egiteko, betiere talde teknikoaren laguntzarekin. Modu berean, larrialdiko kasuan, Kanpuseko edo gertuko ospitaleetako medikuei baimena ematen die kirolariaren alde laguntzeko.
5- Kirolari guztiek lizentzia federatiboa indarrean izan beharko dute Kanpusera joan ahal izateko, baita istripu kasuan aseguruaren estaldura izateko ere.
6- Antolatzaileak konpromesua hartzen du etika profesional zorrotzari dagokion lana egiteko eta Kanpusa ongi gauzatzeko neurriak hartuko ditu. Horretarako, beste enpresek eskainitako zerbitzuak eta kirolariaren aldeko kudeaketa guztiak kontrolatuko ditu. Hala ere, ez da kanpoko enpresek eragindako kalte-galeretaz arduratuko.
7- Gurasoek / Tutoreek Nafarroako Tekwondo eta I.K. Federazioari baimena ematen diote irudiak erabil ditzan bere publizitate-plataformetan taekwondoa sustatzeko.
8- Kanpaldiko inskripzioa egiterakoan aurrean aipatutako baldintza guztiak onartzen dira erabat.

## ZURE SEME-ALABEK GOIZATUKO DUTE KIROLA EGITEN

**Nafarroako Taekwondo Federazioak Taekwondo praktikatzeko aukera eskaitzen die zure seme-alabei. Helburua da heziera pertsonala eta laguntasuna sustatzea lasaitasunezko giroan.**

### NAFARROAKO TAEKWONDO ETA I.K. FEDERAZIOA

**Inskripzioak:**

2019ko martxoaren 19ra arte

**Informazioa:**
**inscripciones@taekwondonavarra.com**

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara
Tfnoa.: 948 229467

### PLAZA MUGATUAK:

**30 plaza arte inskripzio ordenaren arabera**

ORGANIZA:

FEDERACION NAVARRA DE TAEKWONDO y D.A./I.K.
NAFARROAKO FEDERAZIOA

Q31 20120E

**Federación Navarra de Taekwondo y D.A.**
Plaza Aizagerria, nº 1, Pamplona 31006
Casa del Deporte / Kirol Etxea - Navarra Arena
948229467/ 699461714
www.taekwondonavarra.com
mail: info@taekwondonavarra.com

COLABORA

IMQ
IGUALATORIO DE NAVARRA

PATROCINA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

FEDERACION NAVARRA DE
TAEKWONDO y D.A./I.K.
NAFARROAKO FEDERAZIOA

# *ASTE SANTUKO KANPALDIA*

## APIRILAREN 23TIK 26RA

## LEKAROTZ ATERPEA

## 2019KO APIRILA

***Lagun kirolariak**:*
*Mezu honen bidez, agurtzeaz gain, gonbidatu nahi zaituztegu Nafarroako Taekwondo eta I.K. Federazioak antolatzen duen Aste Santuko Kanpaldira.*

## TOKIA

Lekarotz Aterpea Nafarroako Lekarotz herrian dago, Baztango herri bat da eta Iruñetik 58 kilometrora dago.
Helbidea:
Uharte Auzoa K. z/g, 31795 Lekarotz.

## ADINA

Kanpaldia **2003. urtetik 2011. urtera** jaiotako neska eta mutilei zuzenduta dago.

## OSTATUA

Lekarotzeko aterpeak bi solairu ditu: Lehenengoan, lehio zabalak, balkoi eta 6 ohe dituzten 6 logela, komuna duten hiru logela bikoitza, eta egongela duen Apartamendu bat daude. Honetaz gain, solairu honek 2 komuna daude.
2. Solairuan, 6 oheko 14 logela, lehenengo solairuko antzeko 3 logela bikoitza eta 2 komuna daude.

Oherako izarak eta urte-sasoiaren arabera lo egiteko beharrezkoa den guztia prezioaren barne dago.

## OTORDUAK

Egunero hirutan izango dira. Aterpeak sukalde propioa du eta parte hartzaileen adinari eta jarduerei egokituta dago.
Begetariano, diabetiko edota zeliako dietak eskaini ahal dira.
“Oharrak” atalean aipatu medikamenduekin batera kudeatzeari edo ezagutzeari begira.

## MONITOREAK

Guztiak gaituak eta Nafarroako Taekwondo eta I.K. Federazioko kideak.

## JARDUERAK

- Talde dinamikak
- Denbora librea
- Formakuntza tailerrak: lehenengo sorospenak, bendajea, masajea…
- Poomsae eta borrokaldi entrenamenduak mailen eta gustuen arabera antolatuak.

## INSTALAZIOAK

Aterpearen onurenetariko bat da erabilpen aunitzeko gelak dituela. Primeran daude bilerak, tailerrak, ikastaroak, erakustaldiak, hitzaldiak, jolasak, etab. antolatzeari begira. Gainera, erosoak direnez eta bista zoragarriak dituztenez, proposatutako edozein jarduera goxoz gozatu ahalko da. Modu berean, aterpeak kafetgi, vending makinak, telebista areto, joku areto (ping-pong, futbolin, billar eta mahai-jokoak), garbitoki, jangela, eta sukalde industriala ditu. Gela guztiak WIFI konexioa du.

## PREZIOA: 120 Euro

**50€ Aurre-inskripzioa**
**Ordainketaren frogragiria aurkeztu IMPRIMAKI honekin eta T.I.S.-eko fotokopiarekin batera.**
**MARTXOAK 19 baino lehen.**

Aurre-inskripzioa egin duen pertsona bakoitzarekin kontaktatuko dugu matrikula tramitatzeko eta **70€**-ko bigarren ordainketa apirilak 15 baino lehen egin beharko da.

**BARNE DAUDENA:**

- Mantenu osoa
- Programatutako ikastaroak eta jarduerak
- Kanpaldian parte-hartzearen diploma
- Istripu eta erantzukizun zibileko asegurua

## OHARRA:

Egun batzuk lehenago kontaktuan jarriko gara parte-hartzaileekin ordutegi zehatzak eta kontaktu-telefonoak emateko, beharrezkoak diren arropa eta materialak zehazteko, etab.…

## 2019KO APIRILEKO TAEKWONDO KANPALDIKO INSKRIPZIOA

KIROLARIA: Izena ______________ Abizenak ______________

Aitaren /Amaren / Tutorearen IZEN eta ABIZENAK: ______________

Telefonoa ______________ / ______________ Jaiotze-data ______________ G.S.-ko zk. ______________

Kluba ______________

Posta elektronikoa ______________ Oharrak ______________

Ordainketa edozein CAIXA sukurtsalean egin daiteke **ES14 2100 5264 40 2100 566015 kontu korrontean.**
Ordainketa-modua: **50€ Aurre-**Inskripzioa (Martxoak 19 baino lehen) / **70€** (Apirilak baino lehen).
Aurre-inskripzioa egiterakoan, ordainketaren frogagiria aurkeztu beharko da Federazioan.

Programa eta baldintzak erabat onartzen ditut

Sinadura:
Izena: